

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Masanobu Fukuoka: lasto izpi batean datza iraultza

Ez bakarrik pozoirik eta ongarri sintetikorik gabe, sorobatzeak goldatu eta jorratu gabe lantzea aldarrikatu zuen Masanobu Fukuokak, nekazaritza naturalaren aitzindariak. Laborantzak naturarekiko errespetuan eta gizakiaren garatze espirituzkoan oinarritu behar duela zioen.

LURRA LANTZEAREN HELBURUA EZ da uztak haztea, baizik eta gizakiak hazi eta perfekzionatzea". Hitzok Masanobu Fukuokak esanak dira. Nekazaritza bide espiritualtzat jorratu zuen Fukuoka abuztuaren 16an hil zen, 95 urterekin. Askorentzako, iraultza ekarri zion laborantzari, ofizio hau taismoan oinarritutako filosofiarekin uztartuta "nekazaritza naturala" landu baitzuen. Lurgintzako eredu industrialetik aldenduta eredu alternatiboetan ari diren base-rritarrek erreferentzia baztertu ezinezkotzat daukate.

Fukuoka jotzen dute batzuek Permakultura deitzen den ereduaren aitzindari. Egia esan, nekazaritza edo baratzegintza ez-industrialak egiten duen edonork aurkituko ditu bere ideietako asko japoniarren idatzietan islatuta. Baina Fukuokak oso era erradikalean bizi izan zuen naturarekiko harremana. Ez goldatu edo aitzurtu, ez erabili ez ongarririk eta ez pestizidarik, ez kendu belar txarrik, ez inausi edo kimatu. Lau printzipio erradikalok eta mendietan baso berriak sortzeko haziak buztinezko bolatxotan barreiatzea (*nendo dango* teknika), horiek dira Masanobu Fukuokaren ereduaren ezaugarri nabarmenenak.

Hiru liburutan utzi zituen ideioak bildurik: "Lasto izpi baten iraultza" (gaztelaniaz *La revolución de una brizna*

*de paja* doan eskura daiteke Internetez), "Lurgintzaren bide naturala" eta "Naturara itzuli". Dena dela, 60 urte bete ondoren hasi zen idatzi eta publikatzen. Aurretik, bizi osoa familiako etxaldean eman zuen, natura ezagutu eta baratzea lantzen.

Fukuoka 1913an sortu zen Japoniako hegoaldeko Shikoku uhartean, nekazari familia batean. Mikrobiologia ikasketak egin zituen eta landareen gaixotasunetan espezialdu. 25 urterekin funtzionario lan on eta segurua zeukan arren, sorterrira itzuli zen, bihozkada batek behartuta: lurrarekin adiskidetasunean eta behar baino lan gehiago eskatuko ez zuen laborantza behar zuela aurkitu.

"Lasto izpi baten iraultza" japonieratik ingelesera itzuli zuen Larry Korn-ek liburuaren hitzaurrean kontatzen du nola Fukuokak eredu berriaren gakoetako bat aurkitu zuen soroetan zebilela. "Kasualitatez, urte luzez landu gabe utzitako alor batean topatu zituen arroz landare sendoak belar gotorren artean". Natura hori egiteko gauza bazen, zertarako hainbeste lan?

Jarduera guztia naturaren erritmoari egokitzen hasi zen Fukuoka. Hasteko, arroz haziak udaberrian ereiteko ordez, udazkenean erein, naturan lurrera berez eroriko lirakekeen sasoiari alegia. Ez gehiago ureztatu arroztiak. Ez goldatu lurrik. Belar

Irudian Masanobu Fukuoka etxeko atarian jezarrita. Berak nekazaritza naturala deitzen zuena naturaren ezagutzarekin adina lotzen zuen bizipen espiritualarekin, baina argi adieraziz berezko nekazaritza egiteko ez dagoela pentsakera jakin batekoa izan beharrik. Mundu osotik hurbildu zitzaizkion jendeak ate joka, lurgintza sakonago ezagutu nahiz, eta Fukuokak mundua korritu zuen hizlari zahartzaroan. Azken urteetan burubide nagusi zuen *nendo-dango* teknika –ikusitako bolatxoak irudi txikian– denetan zabaltzea. Ziur zen haziz hornitutako buztinezko bolatxoak erabiliz Mediterraneoko paraje idortuak berriro oihaneztatu daitezkeela, eta munduko basamortu asko ere bai. "Ez esku hartzea" aldarrikatzen zuen Fukuoka tai gabeko ekintzan aritu zen hil artio.


txarrak kentzeko ez gehiago aitzurtu. Honen ordez, hirusta zuria erein alor osoan, eta era berean gari edo olo landareen lastoz estali zorua. Orogen buru, saiatsen zen naturari ahalik eta oztopo gutxien jartzen haziak erein eta uztak bildu arteko bidean. Bestalde, arbolak ez zituen inautsen, beren kasa hazten lagatzen zien.

Lurrak, antzinako molde zaharrean landua izan bada, eta zer esanik ez eredu industrialean erabili baldin badute, hogeitaz gora behar omen ditu berriro bere onera etortzeko, baina sendatzea posible dela uste zuen Fukuokak. Ez hori bakarrik, metodo naturalean lortu omen daitezke goldaketaz eta ongarririk kimikoekin eskuratzen diren adinako uztak, produktu osasungarriagoekin gainera.

### "Nendo-dango" idortua hezetzeko

Masanobu Fukuokaren burubideak Zen budismoaren eta Tao Te Kingaren ildoan oinarritzen dira. Hauek funtsezkoa da "Wu Wei" ideia, batzuek "ez egitea" itzultzen dutena eta besteek "ez eskuhartzea". Edozein gatazkatan legez, taoistek lurrarekiko harremana ere "egin gabe egitea" oinarrituko lukete.

"Nekazaritza da –idatzi du Fukuokak– jarduera bat non laborariak bere burua naturari egokitu behar baitio. Horretarako, arroz lan-



bizi. Sarritan 100 hazi ezberdin behar dira, ekosistemak ondo eta azkar arnasa hartu dezan, batetik zuhaitzak, bestetik belar, landare eta sastrakak... Pikorrei sendotasuna emateko kotoia eta papera ere gehitu dakizkieke. Denak nahastu eta pixkana buztina eta ura erantsen zaie, orea eten gabe nahastuz, hazien inguruan bi edo hiru zentimetroko diametroan pikorrak bildu arte. Itzalean lehortu ondoren, soro edo eremuetan jaurtitzeko prest daude. Animaliek ez dituzte jango, eta hurrengo euriarekin hasiko dira ernetzen, nor bere sasoiaren.

Milaka ikasle pasatu ziren Masanobu Fukuokaren etxaldetik, nekazaritza naturalaz jantzi nahian. Maisu zaharrak berriz mundua korritu du hitzaldiak emanez. Zahartzaroan Fukuokak gero eta presa handiagoa zeukan munduan zehar ahalik eta *nendo dango* gehien barreiatu zedin. Basoen eta bioaniztasunaren galerak ikaratzen zuen. Azkar mugitu behar zela zioen.

Duela gutxi agureak elkarrizketagile bati erantzun zion: “Esaten dizut liburuak harrika botatzeko, ez duzuela hainbeste pentsatu behar. Artikuluan jar ezazu nahi duzuna, baina azken lerroetan ipini: ‘Elkarrizketa honek ez du ezertarako balio’. Buztinezko bolatxoak erein behar ditugu fite, ez zaigu-eta astirik geratzen”. ■

dareari begiratu behar diozu eta entzun berak esandako hitzak. Landareak esaten dizuna ulertzen baduzu, zure bihotza egokitzen diozu landarearenari eta orduan zaindu egiten duzu. Egia esan, ez dugu hura zertan zaindurik. Landarea bera haziko da. Guk naturari zerbitzea baizik ez dugu egiten. (...) Ez naiz ari landarea behatzeaz, honela zuregandik ezberdina den objektu bihurtuko duzu eta. Hitzez esplikatzeko oso zaila da hau. Nolabait esateko, zerorrek bihurtu behar duzu arroz landare, zu-zeu desagertu arte begira dagoen subjektu moduan”.

Naturarekin borrokan baino naturarekin bat eginda lan egitea da Fukuokaren ideia nagusia: landareek eta animaliek, ortuzain gehie-

nok kaltegarritzat dauzkagunak barne, sakonetik ezagutu, haien arteko loturak ulertu eta gure lana haietara egokitzea. Laborarietako egindako lan gehienak alferrikakoak, neketsuak eta naturarentzako kaltegarriak direla uste du, eta horren ordez lurra bere mozkinak eman ditzan prozesuetan ahalik eta gutxien esku hartzea proposatzen.

Hondatutako parajeak eta desertu bihurtutako eremuak berriro berdearazteko sistemak, *nendo dango* izenekoak, egin du famatu leku askotan Masanobu Fukuoka. Sekretua datza haziak buztinezko bolatxoetan bilduta ereitean.

Oihanez jantzi nahi den eremua aztertu eta bertarako egokitutako landareen haziak biltzen dira lehen-

[www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php) helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



K A L I T A T E A

Produkturik onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta  
eguzkitako  
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani kalea 23 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskainet.net  
TEL.: 943 420 524